

ABURTO ALKATEA BURU, BILBOKO HIRI KONTSEILUAREN OSOKO BILKURA EGIN DA

- **Hamargarren osoko bilkura honetan, Bilboko Alkateak berrikitan aurkeztutako 2019-2023ko Agintaldi Planaren xehetasunak ezagutzera eman eta “Bilbao, Balioen Hiria” proiektuaren bilakaera eta egungo egoera aztertu dituzte.**
- **Bilboko Hiri Kontseilua tokiko ekonomiaren garapenaz, Bilboren plangintza estrategikoaz eta hiriko proiektu nagusiez kontsultatu eta eztabaidatzeko organoa da, eta erakunde ekonomiko, sozial, kultural eta profesional zein auzo-elkarte nagusien ordezkariak osatzen dute.**

(Bilbon, 2020ko otsailaren 12an).- Juan Mari Aburto Bilboko Alkatea buru, gaur arratsaldean egin da Bilboko Hiri Kontseiluaren osoko bilkura, kontsulta-organo honen aurtengo lehena, Aburto Alkateak urtarrilaren 21ean aurkeztu zuen 2019-2023ko Agintaldi planaren ildo nagusiak ezagutzera emateko eta “Bilbao, Balioen Hiria” proiektuaren bilakaera eta egungo egoera aztertzeko.

[Bilboko Hiri Kontseilua](#) tokiko ekonomiaren garapenaz, Bilboren plangintza estrategikoaz zein hiriko proiektu nagusiez kontsultatu eta eztabaidatzeko organoa da, eta 90 pertsona inguruk osatzen dute, erakunde ekonomiko, sozial, kultural eta profesional zein auzo-elkarte nagusien ordezkariak tarteko direla.

Bilboko Hiri Kontseiluko kideak dira, halaber, Ibon Areso, lehengo Bilboko Alkatea, eta itzal handiko pertsona ospetsuak; hala nola, Pedro Luis Uriarte, Gaspar Martínez Fernandez de Larrinoa, Maria Jesus Cava, Cosme Naveda, Itziar Lazkano, Alberto Campos Saavedra, Maitane Leizaola, Hector Sánchez, Pedro Ontoso, Mercedes de Miguel, Miguel Ángel Lujua, Antonio Barandiarán, Montserrat Barquín, Juan Carlos Matallanes, Regina Zalbide, Marcelo Borja Motos, Jokin Gorokiza, Iñaki Orbe Onaindia eta Jesus Antonio Pérez-Arrospide, besteak beste.

Gaurkoa Hiri Kontseiluaren hamargarren osoko bilkura izan da, organo hau 2010ean sortu zenez geroztik, eta bertan, Aburto Alkateak ezagutzera eman ditu, urtarrilaren 21ean Gotzone Sagardui, Alfonso Gil eta Nekane Alonso alkateordeekin batera aurkeztu zuen 2019-2023ko Agintaldi Planaren xehetasunak.

2019-2023KO AGINTALDI PLANA

[2019-2023ko Agintaldi Plana](#) lantzeko, abiapuntutzat hartu da “Eduki dugun Bilbo” deritzon errealitateari buruzko azterketa, eta Alkatearen hitzetan, gure hiriak *“irudi bikaina eta gizarte zibil aberatsa dauzka, baita kalitatezko zerbitzu publikoak eta kudeatzeko esperientzia aitortua ere, baina azken krisi ekonomiko eta finantzarioaren ondorioak jasaten ari da oraindik”*.

Testuinguru honetan, *“enplegua eta ekonomiaren hazkundera, gizartea nahiz hiria gaztetzea, munduko klima-larrialdia eta egungo bizikidetzaren maila guztiz altua eta herritarren balioak egunero mantentzeko premia”* dira, Juan Mari Aburtoren iritziz, Bilboko gizartek gaintitu beharreko etorkizuneko erronka nagusiak.

Etorkizunari dagokionez, *“helburu nagusia Bilbo iraunkorra eraikitzen jarraitzea da, pertsona guztientzat, auzo guztietarako eta jarduera ekonomikoari begira, betiere Nazio Batuen 2030erako Agendarekin eta honetan bildutako Garapen Iraunkorreko Helburuekin (GIH) lerrokaturata”*, eta horretarako, 2023ko Agintaldi Planaren *“Gura dugun Bilbo”* delako atalak egun abian dauden 10 hiri-proiektu nagusiak zehaztu ditu:

1. Zorrotzaurre, Ezagutzaren Uhartea
2. Bilbo, unibertsitatearen hiria
3. Bilbo, ekintzaitzaren hiria
4. Bilbo, kulturaren hiriburua
5. Merkataritzaren eta aisiaren dinamizazioa
6. Gure konektagarritasuna hobetzea
7. Segurtasunaren aldeko Ituna
8. Hiri Mugikortasun Iraunkorraren aldeko Ituna
9. Gizarte Politiken aldeko Ituna
10. Auzoen aldeko Ituna

Era berean, Alkateak *“egungo udal gobernuaren bide-erantz”* jo duen Bilboko Udalaren 2023ko Agintaldi Planak *“10 ekintza-ildoren inguruko lehentasunezko 100 ekintza”* jaso ditu, *“gero eta kohesionatuagoa dagoen Bilbo iraunkorraren aldeko apustuari eusteko, pertsona guztien bizi-kalitatea eta auzo guztietara hedatutako kalitatezko zerbitzuak bermatzeko, Bilbo inbertsio zein enpleguaren sorkuntzarako erakargarri bihurtzeko eta herritarrek partekatutako balio sendoak mantentzeko, batez ere gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasunarena”*:

1. Jarduera ekonomikoa eta enplegua: 16 ekintza
2. Gizarte politikak: 18 ekintza
3. Garraioa, mugikortasuna eta irisgarritasuna: 10 ekintza
4. Gazteria, balioak, hezkuntza eta prestakuntza: 8 ekintza
5. Kultura eta kirola: 11 ekintza
6. Bizikidetzaren eta segurtasuna: 8 ekintza
7. Iraunkortasuna eta hiri eraldaketa: 15 ekintza
8. Auzoen garapena: 7 ekintza
9. Bilbo euskalduna: 3 ekintza
10. Gardentasuna, parte hartzea, zorrotasuna eta kudeaketa ona: 4 ekintza

Bilboko Hiri Kontseiluaren egungo osoko bilkuran aztertu eta eztabaidatu ondoren, parte-hartzea, gardentasuna eta kontuak ematearen aldeko apustu argiari eutsiz, 2019-2023ko

Agintaldi Planak etengabeko jarraipena izango du www.bilbao.eus webgunean nahiz auzoetan eta maila sektorialean antolatutako topaketen bitartez.

“BILBAO, BALIOEN HIRIA”

Bestalde, agintaldi honetan egindako lehenengo osoko bilkuran, Bilboko Hiri Kontseiluak “Bilbao, Balioen Hiria” proiektuaren bilakaera eta egungo egoera aztertu ditu, izan ere, Kontseiluak 2018an egin zuen azken osoko bilkuraren ondoren, proiektua [ingelesera](#), [frantsesera](#), [txinera](#), [arabierara](#), [errumanierara](#) [etra portuguesera](#) [itzuli](#) eta hizkuntza horietan argitaratu da, Bilbon bizi diren pertsona guztiek, jatorria edo ama-hizkuntza edozein izanda ere, “Bilboko Balioen Agiria” eskuratu eta ulertzeko aukera izan dezaten.

Era berean, beste hainbat ekintzaren artean, Udalak [nerabeei zuzendutako sentsibilizazio eta balioak sustatzeko kanpaina](#) garatu du, “Bilbi, balioak ibilian” deritzona, eta iazko azaroan, Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Elkartearen Estatuko Sareak [Bilbon antolatu zuen "Balioen Hiria, Hiri Hezitzailea" IV. Foroaren barruan](#), “Bilbao, Balioen Hiria” proiektua jarraitu beharreko eredutzat aukeratu zen balioen hirietan duten garrantzia zehazteko eta sare osoan aplikatzeko moduko balioen eta jardunbide egokien mapa adosteko.

[“Bilbao, Balioen Hiria”](#) proiektua 2016an abiatu zen, eta lankidetzaz bidezko prozesu bati esker, hiria bereizten duten balioei buruzko azterketa, gogoeta eta definizioa adostu zuen erakundeekin, gizarte-entitateekin, kultura zein kirol elkarrekin, enprekin, komunikabideekin, ikastetxeekin eta herritarrekin batera.

2018 maiatzaren 22an, Bilboko Udalbatzak [“Bilboko Balioen Agiria”](#) onartu zuen, honi atxikitako banakako zein taldekako 17 balioak barne hartuta.

- Giza Eskubideen errespetua, justizia soziala, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, elkartasuna.
- Aniztasuna/inklusioa, konpromisoa, ingurumenaren arloko jasangarritasuna.
- Partaidetza, konfiantza, sormena, elkarbizitza, nortasuna, esfortzua
- Erantzunkidetasuna, zintzotasuna, ilusioa eta osasuna

EL ALCALDE ABURTO PRESIDE LA REUNIÓN PLENARIA DEL CONSEJO CÍVICO DE LA VILLA

- **En esta décima sesión plenaria se ha dado a conocer en profundidad el Plan de Mandato 2019-2023, presentado recientemente por el Alcalde de Bilbao, y se ha analizado la evolución y el estado actual del proyecto “Bilbao, Balioen Hiria”.**
- **El Consejo Cívico de la Villa es un órgano consultivo y deliberante en materia de desarrollo económico local, planificación estratégica de la ciudad y grandes proyectos urbanos, integrado por representantes de las principales organizaciones económicas, sociales, culturales, profesionales y vecinales.**

(Bilbao, 12 de febrero de 2020).- El Alcalde de Bilbao, Juan Mari Aburto, ha presidido esta tarde la reunión del Plenario del Consejo Cívico de la Villa de Bilbao, el primero que este órgano consultivo convoca este año, donde se han expuesto las líneas maestras del Plan de Mandato 2019-2023 presentado por el Alcalde Aburto el pasado día 21 de enero, y se ha analizado la evolución y el estado actual del proyecto “Bilbao, Balioen Hiria”.

El [Consejo Cívico de la Villa de Bilbao](#) es un órgano consultivo y deliberante en materia de desarrollo económico local, planificación estratégica de la ciudad y grandes proyectos urbanos, y está integrado por alrededor de 90 personas, entre las que se encuentran representantes de las principales organizaciones económicas, sociales, culturales, profesionales y vecinales de Bilbao.

También forman parte del Consejo Cívico de la Villa de Bilbao el anterior Alcalde de Bilbao, Ibon Areso y personalidades de la talla de Pedro Luis Uriarte, Gaspar Martínez Fernández de Larrinoa, Maria Jesus Cava, Cosme Naveda, Itziar Lazkano, Alberto Campos Saavedra, Maitane Leizaola, Hector Sánchez, Pedro Ontoso, Mercedes de Miguel, Miguel Ángel Lujua, Antonio Barandiarán, Montserrat Barquín, Juan Carlos Matallanes, Regina Zalbide, Marcelo Borja Motos, Jokin Gorokiza, Iñaki Orbe Onaindia o Jesus Antonio Pérez-Arrospide, entre otros.

La de hoy es la décima reunión del Plenario del Consejo Cívico de la Villa, desde su creación en 2010, y en ella, el Alcalde Aburto ha dado a conocer los detalles del Plan de Mandato 2019-2023, que él mismo presentó el pasado día 21 de enero junto a las y los Tenientes de Alcalde Gotzone Sagardui, Alfonso Gil y Nekane Alonso.

PLAN DE MANDATO 2019-2023

El [Plan de Mandato 2019-2023](#) parte de un análisis real de “El Bilbao que tenemos”, una ciudad que, en palabras del Alcalde, cuenta con una *“excelente imagen, una rica sociedad civil y servicios de calidad respaldados por una reconocida experiencia de*

gestión, pero sigue sufriendo todavía las consecuencias de la última crisis económica y financiera”.

En este contexto, *“el empleo y el crecimiento económico, el rejuvenecimiento urbano y social, la emergencia climática mundial y la necesidad de seguir manteniendo el altísimo nivel de convivencia y valores cívicos que disfrutamos en la actualidad”* constituyen los principales retos de futuro a los que se enfrenta la sociedad bilbaina, a juicio de Juan Mari Aburto.

Respecto al futuro, *“el gran objetivo es seguir construyendo un Bilbao sostenible para todas las personas, para todos los barrios y para la actividad económica, alineado con la Agenda 2030 de Naciones Unidas y sus Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS)”*, y para ello, el apartado titulado *“El Bilbao que queremos”* del Plan de Mandato 2019-2023 enumera los 10 grandes proyectos de ciudad actualmente en marcha:

11. Zorrotzaurre, la Isla del Conocimiento
12. Bilbao, ciudad universitaria
13. Bilbao, ciudad emprendedora
14. Bilbao, capital cultural
15. Dinamización del comercio y el ocio
16. Mejora de nuestra conectividad
17. Pacto por la Seguridad
18. Pacto por la Movilidad Urbana Sostenible
19. Pacto por las Políticas Sociales
20. Pacto por los Barrios

Asimismo, el Plan de Mandato 2019-2023 del Ayuntamiento de Bilbao, calificado por el Alcalde como *“la hoja de ruta del actual gobierno municipal”*, recoge *“10 líneas de actuación con 100 actuaciones prioritarias”* para el desarrollo de un Bilbao *“sostenible y cada vez más cohesionado, con calidad de vida para todas las personas y con servicios de calidad para todos los barrios, un Bilbao atractivo para invertir y generar empleo, con valores sólidos compartidos por la ciudadanía, entre los que destaca la igualdad entre hombres y mujeres”*:

11. Actividad económica y empleo: 16 actuaciones
12. Políticas sociales: 18 actuaciones
13. Transporte, movilidad y accesibilidad: 10 actuaciones
14. Juventud, valores, educación y formación: 8 actuaciones
15. Cultura y deporte: 11 actuaciones
16. Convivencia y seguridad: 8 actuaciones
17. Sostenibilidad y transformación urbana: 15 actuaciones
18. Desarrollo de barrios: 7 actuaciones
19. Bilbao euskaldun: 3 actuaciones
20. Transparencia, participación, rigor y buena gestión: 4 actuaciones

Tras su análisis y debate en la sesión plenaria de hoy del Consejo Cívico de la Villa, y en apuesta clara por la participación, la transparencia y la rendición de cuentas, el Plan de Mandato 2019-2023 tendrá un seguimiento continuado, tanto en la web municipal www.bilbao.eus, como a través de encuentros en barrios y a nivel sectorial.

“BILBAO, BALIOEN HIRIA”

Por otro lado, en esta primera reunión plenaria del presente mandato, el Consejo Cívico de la Villa ha analizado la evolución y el estado actual del proyecto “Bilbao, Balioen Hiria”, que, desde el anterior plenario de noviembre de 2018, ha sido [traducido y editado en inglés, francés, chino, árabe, rumano y portugués](#), para que todas las personas que residen en Bilbao, independientemente de su procedencia o lengua materna, tengan acceso y comprendan el contenido de la “Carta de Valores de Bilbao”.

Asimismo, entre otras acciones, el Ayuntamiento ha desarrollado un [programa de sensibilización y fomento de los valores entre adolescentes](#), “Bilbi, balioak ibilian-Bilbi, valores en marcha” y, el pasado mes de noviembre, [Bilbao acogió el IV Foro “Ciudad de Valores, Ciudad Educadora”](#), organizado por la Red Estatal de la Asociación Internacional de Ciudades Educadoras, que escogió el proyecto “Bilbao, Balioen Hiria” como modelo a seguir para definir el papel de los valores en las ciudades y consensuar un mapa de valores y buenas prácticas aplicables al conjunto de la red.

El proyecto [“Bilbao, Balioen Hiria”](#) arrancó en 2016 con el análisis, reflexión y definición colaborativa de los valores que caracterizan a la ciudad, de forma consensuada con instituciones, entidades sociales, culturales, deportivas, empresas, medios de comunicación, centros educativos y ciudadanía en general.

El 22 de marzo de 2018, el Pleno del Ayuntamiento de Bilbao aprobó la [“Carta de Valores de Bilbao”](#), que recoge un total de 17 valores individuales y colectivos:

- Respeto a los Derechos Humanos, justicia social, igualdad entre hombres y mujeres, solidaridad.
- Diversidad/inclusión, compromiso, sostenibilidad medioambiental
- Participación, confianza, creatividad, convivencia, identidad, esfuerzo
- Corresponsabilidad, honestidad, ilusión y salud